

JASANGARRITASUNERAKO ESKOLEN LEHEN BILERA MEATZALDEAN

Posted on 24/11/2023 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Agenda Escolar](#), [Escuelas para la Sostenibilidad](#), [Meatzaldea](#)

Atzo, azaroaren 23an, osteguna, Ortuellako Udalaren laguntza teknikoaren esparruan, Naiderek jasagarritasunerako eskolen eskualdeko lehen bileran parte hartu zuen.

Topaketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko [Berritzeguneak](#) antolatu eta dinamizatu zuen. Deialdi honen inguruan bildu ziren Meatzaldeko hamaika ikastetxeak Gallartako Ekoetxean. Bileran, ikasturtean zehar egingo den lanaren oinarriak finkatu ziren, eta hainbat dinamika eta gogoeta egin ziren ikastetxeetara eta udalerrietara eramateko.

Naidar abian da Eskola Agenda 2030en metodologia berria aplikatuz, Ortuellako hiru ikastetxeekin lankidetzan eta koordinatuta: San Jose Ikastola, Ortuella BHI eta Otxartaga HLHI.





